

berbarotarra

3ER
3A
RC

elkartea

Berbarok jarraituko dau Durangoko Euskera Zerbitzua kudeatzen

Udaleko Euskera Zerbitzuan hizkuntz normalizazinarako eta dinaminazinarako beharrak egiten jarraituko dau Berbarok. Era berean, Durangoko denda eta alkarteetan hizkuntza normaltzeko egitasmoaren ardurea-gaz be jarraituko dau. Horretarako, Berbarok lankidetzat ituna sinatuko dau Udalagaz. Halantxe erabagi eben Aste Santu aurreko Gobernu batzordean.

Zerbitzua eroateko lehia-keta publiko deitu eban Udalak. Proiektua prestatu eban Berbarok, aurreko urteetan egin dan bidetik abiatuta eta gaur egunera egokiturik. Esan beharra dago konpetentzia gogorra izan dogula. Izan be, gure alkarteagaz batera, arloko

izen handiko enpresek aurkeztu dabe bere proiektua, Siadeco, Elhuyar eta Labayruk, hain zuzen be; eta gure eskaintzea begitandu jakie egokiena. Lankidetzat itunak urte biko iraupena euki-ko dau; eta gero, luzapena egiteko aukerea beizangoda beste urte bi. Euske-rearen Normalizazino Plangintzearen

barruan lankidetzat hitzarmena sortu eban Udalak 1998an. Orduan AEK-k hartu eban ardurea. Urtebetere

Lankidetzat itunak urte biko iraupena eukiko dau

rako ituna izan zan eta, ostean, Berbarogaz sinatu eban akordioa Udalak; eta 1999, 2000 eta 2001ean jardun dau horretan alkarteak. 2000.

urtean aurre-
rapauso
nabaria
emon zan,
denda eta
alkartee-

tan euskerea normaltzeko egitasmoa batu eta nortasuna emon jakon, Guk Euskeraz izena ipiniz.

Esan dogun moduan, 2002. eta 2003. urteetan be Berbaroren ardurea izango da Durangoko Udalaren Euskeraren Normaliza-

Urteetako lanak fruituak emoten hasi diralakoan gagoz

zio Planari ekarpenak egitea, dinamizatzea eta, azken baten, sendotzea. Hau behar guztiau aurrera eroateko,

Berbaroren langile bik dihardue lanean: Fernan Udaleko Euskera Saila dinamizatzen eta, Rakel, denda eta alkarteetan euskerea suspertzen.

Barri pozgarria da Alkarterentzat. Urteetako lana eta ahaleginak fruituak emoten hasi diralakoan gagoz.

Amaitzeko esan, hemendik aurrerako Boletinetan Udaleko Euskera arloan egiten dan beharren barri emoteko asmoa dogula. Hurrengo arte, ba, badakizue sujerentziak, kexak, ekarpenak eta kritikak entzuteko prest gagozala, beti be, egiten dogun lana eta emaitzak hobetzekotan badira.



BADATOK UDALAKUAK

Badirudi udaberria guztiz piztu zaigula eta, honekin batera, uda sasoiari usaina hartuz, Berbaroko Guezan Ba! haur eta gazte taldea hasi da Udalekuak prestatzen, gogor. Eskolak bukatu ondoren eta lan gogorra alde batera utzirik, uda heltzean, haur eta gazteek aisialdirako denbora luze dute.

Denbora honen zati bat, era dibertigarri eta aberasgarrian igarotzeko aukera udalekuak dira: udan, euskaraz gozatzeko egokiera paregabea.

Esperientzia ahaztezina da udalekuetan hamabost eguneko elkarbizitza. Etxetik urrun, ume eta gazteek gauza asko ikasten dituzte: besteekin erlazionatzen, nor bere buruarekin arduratzen, norbera bakarrik defendatzen, e.a. Horrez gain, natura eta euskal kulturarekin lotuta dauden ekintzak bultzatzen dira. Helburu guzti hauek era ludikoan landuko dira, jolasaren bitartez.

6 eta 16 urte bitarteko haur eta gazteentzat 5 udaleku egongo dira. Adinaren arabera, Aubixa, Berriz, Lizarra, Urdirotz edo Adoainera joateko aukera izango dute.

Udalekuak Topaguneko beste elkarte batzuekin bate-

ra antolatu dira. Durango, Lasarte, Elgoibar, Ordizia, Orereta eta Soraluzeko euskarak elkarteekin batera, hain zuzen ere.

Modu honetan, Durangaldeko ume eta gazteek, beste herri batzuetako haur edo gazteekin hartu-emanak izateko aukera izango dute.

Guztira, 5 udalekuetan, 300 ume inguruk parte hartuko dute eta 50 begirale taldeak; begiraleak, koordinatzaileak, sukaldariak e.a. kontutan hartuz.

Hauetatik, *Guezan Ba!* gazte taldetik, 110 ume eta gazte joango dira udalekuetara eta beraiekin, Gue-

zan ba! gazte taldeko 25 pertsona inguruko begirale taldea. Aurten iaz baino plaza gutxiago atera ditugu udalekuetarako. Arrazoia, kalitateari lehentasuna ematea izan da, kantitatearen kalterako.

Iazko udaleku batzuetan plaza gehiegi egon zirela ikusi zen, eta honek eragina zuela umeekin burutzen zen lanean. Beraz, aurten, udaleku txikiagoak egitea erabaki dugu, umeekin burutzen den lana hobetzeko.

Guezan Ba! gazte taldea, udaleku onak eskaintzeko asmotan, buru-belarri dabil lanean. Beraz, animatu eta lehenbailehen apuntatu zaitezte! Plazak mugatuak dira-eta!

NOR DATOR UDALAKUETARA?

UDALAKUAK 2002

Izen emateak:
apirilaren 22tik maiatzaren 31ra

1 > AUBIXA
Lehen Hezkuntzako 1 eta 2. maila
Uztailaren 8tik 14 arte

2 > BERRIZ
Lehen Hezkuntzako 3 eta 4. maila
Uztailaren 8tik 21 arte

3 > LIZARRA
Lehen Hezkuntzako 5 eta 6. maila
Uztailaren 2tik 14 arte

4 > URDIROTZ
DBH 1 eta 2. maila
Uztailaren 2tik 14 arte

5 > ADOAIN
DBH 3 eta 4. maila
Uztailaren 2tik 14 arte

Informazio gehiago Berbaro Elkartearen, Pinondo Plaza 1
94 620 25 40 www.berbaro.com



Berbaroko batzar orokorra

Antolatzen ditugun ekitaldiak eta martxan jarri ditugun proiektuen gaineko zuen iritzia zein izango den galdetzen diogu sarritan geure buruari Berbaroko Zuzendaritzakideok: eragina ote du Berbaroren lanak herria euskalduntzeari begira? Ondo gabiltza orokorrean?

Horregatik bada, aurten ere zuen beharra dugu, egun batekoa bakarrik, maiatzaren 18an. Berbarok Durangoko herria euskalduntzeko egiten du lan, eta herri horren zati inportante bat zuek zarete, beraz, iazko jardunaren balorazioa eta aurtengoan egitekoak ditugunari buruzkoa jaso gurako genuke Batzar Nagusian.

Badakigu bai, horrelako batzarrak normalean astuntxoak izaten direla. Baina argi daukagu derrigorrez egin behar direla, azken baten, zeuna da elkarteak, kide guztionak. Guk asmatuko dugu moduren bat batzarra aspergarriegia ez izateko.

Gainera, azkeneko urteetan Berbarok proiektu handiak lantzen ibili da, gure artean ilusio handia sortu dutenak. Ilusio hori zuekin konpartitzea gurako genuke.

Zatoka bada! Berbaro Elkartearen Batzar Nagusia maiatzaren 18an izango da Pinondo Etxean goizeko 10etan. Eta ostean, luncha izango dugu txokoan.

Euskal Astea

Aurkezpen handirik ez dau eskatzen baina inor ez daiten despistau esango dot Durangon ekainaren lehenengotan izeten dala. Izenak adierazten dauen moduen zazpieguneko kontue izeten da. Durangoko hainbat kultur taldek hartzen dabe parte, baina MIKEL-DI GEKUI-k bultzatu eta antolatzen dau. Era askotako ekitaldiak egoten die eta baten bat aitatzekotan deigarrienak Euskal Azoka, Euskal Dantza Jaialdia, Pilo-ta Jaialdiak, Herri Kirolak, Bertsolariak, etb., aiatu leitekez.

Herriko taldeen parte hartzea zabala dala esan dot, eta halantxik izeten da. Berbarori be parte hartze-ko gonbite luzetu izen deuskue eta ez dogu parte hartu izen. Aurten be luzetu

deuskue gonbite baina guk ezetza erantzun dogu. Baten batek pentsauko dau ez dala oso logikue gure moduko elkarte batek izen hori deukon ekitaldi bati ezetza erantzutie. Berbaroko Zuzendaritza Batzordeko kide garenok osterargi deukogu eta horregaitik idazten duaz lerro honek.

Lehen ekitaldi batzuk aiatatu duaz, baina beste batzuk be antolatzen die, nahiko aste konpletue izeten da eta ezer baino lehen gauza bat argitu gura neuke: egitarauen datozen ekitaldien ganieta parte hartzen dabien taldeen kontra ez daukagu ezer. Berbarok beste baldintza batzuetan antolatu edo bultzatuko leukez. Baina ez gatoz bat aste honek Durangori buruz




Igazko euskal astea kartela

adierazten dauen irudiagaz. Ez gatoz bat aste betean euskara aitzakia moduan hartuta gastetan dan diru kopuruegaz. Ez dogu uste euskara aste batean kultur eta kirol ekitaldi batzuk antolatuta zalbetan danik.

Hau danau kontuen hartute, ez dogu uste Berbarok Euskal Astea parte hartu behar dauenik. Berbarok egunero egingo dau euskararen alde. Berbarok euskal

kultura egunero sustatuko dau. Urteko egun guztietan behar dogu euskara eta gure kultura. Ezin gara folklorismo merke baten jausi. Ezin gara Euskal Herriko turismo gidetan euskal aste bat antolatzen dogulako eza-gunak izen. Euskara hori baino gehiago da.

Amaia Zarrabeitia
Berbaroko Zuzendaritza
Batzordearen izenean



Sukaldaritza Begetarianoa.

nñam, nñam, nñam !

Apirilaren 18n hasi zen Sukaldaritza Begetarianoari buruzko ikastaroa. Bertan 15 pertsonak parte hartzen dute. Astearte eta ostegunetan biltzen dira

jarriko dizuegu, lehenengo egunean honako hau prestatu zuten:

- *Letxuga krepineta guakamolez beteta eta arto saltsa.*

- *Onddo rissottoa arraul-tza gorringo eta gazta birrinduarekin.*

- *"Udaberriko pastela": ore hautsia, gozogintza krema kiwi eta marrubiekin.*

Zer iruditzen zaizue ? Itxura ederra duela esan-go genuke, gozo gozoa. Partehartzaileei, galdetu beharko diegu lana amaitu ondoren egindakoa das-tatzen baidute.

Sukaldaritza Begetarianoari buruzko ikastaroak ordu biko zortzi klase teorikoak eta praktikoak izango ditu. Bere helburuetariko bat da gure eguneroko otorduak aberastea eta barazkiak bazarrik janda elikadura ez dela pobretzen erakustea. Guztia euskal giro baten jorratuta. Sukaldaritza ikastaroa, euskaraz eta lagun artean. On egin guztioi !

Datozenak

Apirilaren 25an, osteguna,
20:30etan **Txuma Murugarren**
BERBARO Tabernan, KULTUR
ERROTaren barruan.

Maiatzaren 9an, osteguna,
20:30etan **P.L.T** taldearen kontzer-
tua BERBARO Tabernan.

Maiatzaren 30an, osteguna,
20:30etan **Ramon Agirre**
BERBARO Tabernan,
KULTUR ERROTaren barruan.

Maiatzaren 31an, ostirala,
Berto Afaria BERBAROk antola-
tuta. Bertsolariak: **J.M. Irazu eta**
Sebastián Lisazo.

ARANTZA

Consum dendei apirileko arantza eskeintzen diegu. Zergaitik? Beraien egoitzetan euskarak duen tratamendu eskasarengatik: kartelak, deiak, eskaintzak, ... erdaraz agertzen dizkigutelako gehien bat. Landu beharreko atala beraz. XXI mendea bukatu orduko bai?



LARROSA

Durangoko Jaisa Inmobiliariak irabazi du gure larrosa. Jaisa ahalegin handia egiten ari da bere eskaparatean euskara agertu dadin. Aldaketa nabarmena, lehen dena erderaz baitzegoen.



Lau berbatan

Hizkuntza Eskubideen Behatokia.

Apirilaren 7tik aurrera "Kontseiluaren Behatokiak jasotako salaketak" erakusketa ikusgai duzue Berbaro Tabernan, EHEk antolatuta. Gogorazi nahi dizuegu Hizkuntza Eskubideen Behatokiak Euskararen telefonoa jarri duela martxan: 902 194 133. Bertan gure hizkuntzaren eskubideei buruzko argibideak eskatzeko edo kexak emateko edo txalotzeko deiak jasotzen dira.




Herrri Urratsera goaz!!

Maiatzaren 12an Herri Urratsera Berbaroren eskutik. Nahi duzuenok autobusa gertu duzue Senperera joateko. Txartelak salgai Berbaroren bulegoan bazkideentzako 8 eurotan. Berbaro Tabernan eta Hitz Liburudendan besteentzako 10 eurotan.

Martxoak 31

Martxoak 31ko ekitaldiko argazkiak dituzue honakoak. Jende ugari hurbildu zen, Andra Mariko elizpean egin ziren ekitaldiak ikustera. Aste Santuko egun hauetan eguraldi ona ere izan genuen. Goiza pasatzeko giro aparta.



JAKI#UN

